



HAUTESKUNDEAK 2020

HAUTESKUNDE BATZORDEA

5 zkdun AKTA.

BOZKATZEKO ARAUDIA ETA SEGURTASUN PROTOKOLOA. ESTAMENTUAK ORDEZKATUZ, BATZAR OROKORREKO KIDE IZATEKO HAUTESKUNDEAK

Lege Araudiak diotenaren arabera eta COVID-19aren ondorioz jasaten ari garen osasun egoera kontutan izanda, eta 2020ko Urriaren 8an Hauteskunde Batzorde honi Osasun Sailak zuzendutako Osasun Publikoari buruzko idatzia eta baita, 2020ko Ekainaren 25ean Osasun Sailburuordeak hauteskundeak ospatzeko ebatsitako osasun araudia errespetatuz, Hauteskunde Batzordeak ondorengo zaintza protokoloa prestatu du bozkatzera datozen pertsonen osasuna babestekotan

1) BOZKATZE GUNEA ETA PROZEDIMENDUA

Hauteskunde Araudiko 6G artikulua ematen dituen ahalmenak aplikatuz, eta, jende pilaketa ekiditekotan, Bozketa, Hauteskunde Egutegian agertzen den Urriak 21ean (asteazkena) ospatuko da, Anoeta estadioko **20 ATEAN** hain zuzen ere.

Hauteskunde ordutegia luzatu egiten da eta arratsaldeko 6tatik gaueko 9tara izango da.

Ondorengo prestatuko da:

- Hautestontzi bat izango duen areto futboleko estamentuarentzat mahai bat (1 mahia)
- Hautestontzi bat izango duen teknikarien estamentuarentzat mahai bat (2 mahia)
- Hautestontzi bat izango duen epaileen estamentuarentzat mahai bat (3 mahia)
- Jokalarien estamentuarentzat 4 mahai prestatuko dira, non bozkatzaileak abizeneko lehen letra kontutan izanda banatuko diren. Mahai hauen zenbakia eta letra hauek aurretiaz iragarkiko dira eta kartelak egongo dira bozkatze gunean.

EZPARRU DESBERDINENTZAKO ORDUTEGI GOMENDIOAK

Jende pilaketa ekiditekotan eta bozkatzera datozen pertsonen osasuna babestekotan, Hauteskunde Batzordeak, ahal izanda behintzat eta jokalarien estamentuan batez ere, ondorengo ordutegia errespetatzea eskatzen du:

Bidasoa-Donostialdea: arratsaldeko 6tatik 6.45tara
Tolosaldea-Goierri-Urola Kosta: arratsaldeko 7tatik 7.45tara
Debagoiena-Debabarrena: arratsaldeko 8tatik 8.45tara.

BOZKATZE GUNEETARA SARRERA

COVID protokoloaren arabera, **Bozkatzeko gunera, soilik, ondorengo pertsonak sartu ahal izango dira:**

- Hauteskunde mahiko eta Hauteskunde Batzordeko kideak
- Erabakitzen diren segurtasun distantziaren arabera bozkatzailerako kopurua.
- Hautagaitzen kontrolatzaileak
- Antolakuntza lanetan eta sarrera kontrolatzen egongo diren GFF-FGF ko langileak
- Berezko funtzioak erabiliz Hauteskunde mahiak edo Hauteskunde Batzordeak baimendutako pertsonak.

Dena den, bertako guztiak, babes neurri guztiak jarraitu beharko dituzte, hau da, ahokoa, gel hidroalkoholikoa eta pertsonen arteko distantzia gorde.

BOZKATZAILEENTZAKO ARAUAK

- 1- Kasu guztietan pertsona arteko kontaktua saihestuko da, ilaretan 2 metrotako eta hauteskunde mahietan 1.5 metrotako distantzia gordez.**
- 2- Derrigorrez **AHOKOA** izango dute. Bozkatzeko unean, identifikazioa dela eta, momentu batez eta segurtasun distantzia gordeta kendu egin beharko dute.
- 3- Bozka tokian sartzeko momentuan, erabilgarri izango duten **gel hidroalkoholikoa erabili beharko da** eskuak garbitzekotan.
- 4- **Bozka tokian sarrera kontrolatuko da. Horrela, gunean, pertsona bakarra izango da bozkatzeko mahai bakoitzean eta gehienez** ilaran egoteko erabakitzen den pertsona kopurua egongo da kanpoan zain 2 metrotako segurtasun distantzia gordez.
- 5- Gainontzeko bozkatzailerako guztiak, instalaziotik kanpo itxaron beharko dute 2 metrotako segurtasun distantzia gordeta. Horrela, ilara bat egongo da, bat epaileen estamenturako, bat entrenatzaileen estamenturako eta 4 ilara berriz jokalarien estamenturako (mahai bat bozkatzeko letraren arabera)
- 6- **Bozkatzera datozen guztiak, derrigorrez NAN a beharko dute (ezean, pasaporte edo gida baimena) eta honek ukitu gabe, hautestontziaren arduradunari erakutsi.**

- 7- Osasun segurtasuna babestekotan eta zenbaketa erraztekotan, bozka, gutunazalik gabe eta bi aldiz tolestua eman beharko da eta mahiko kideak nortasuna ziurtatu ondoren eta baita bozka bakarra dagoela ziurtatu ondoren, bozkatzaileak hautestontzian jarriko du. Bozkatze orriak, hauteskunde guneetan eta GFF-FGF ko web orrian izango dira eskuragarri. Bozka orri hauen nolakoa hautagaitzei esango zaie.
- 8- Soberako material guztia botatzeko zakarrontzi bereziak egongo dira.
- 9- Hauteskunde esparruan ezin izango da eskuan ezer ere eman.

Hemen, 2020ko ekainaren 25ekoa, Osasuneko sailburuordearena, hauteskundeetarako jarraibide sanitarioak argitaratzen dituen azaltzen dizuegu, Zehazki, bigarren artikuluko 7., 8. eta 9. zenbakiak:

7-Antolakuntza-neurriak hartu beharko dira boto-emaeleen hauteslekurako sarbidea, barruko fluxua eta irteera modu ordenatuan egiten direla bermatzeko, pilaketarik egon ez dadin eta beharrezkoak diren distantziak egon daitezen saiatzeko. Lokaletik kanpo edo lokalean zain dauden pertsonen artean segurtasun-tarteak beteko direla ziurtatzeko, lurrean zintak edo banantzeko seinaleak jartzea gomendatzen da.

8-Sarrerak eta irteerak antolatu egingo dira, hauteslekuetan eta horien inguruan jendea elkartzea saihesteko. Ilarak sortuz gero, lehentasuna emango zaie hautesle zaurgarriei, 65 urtetik gorako pertsoneri edo haurdun dauden emakumeei, bozketa-mahaietan ahalik eta denbora gutxien pasa dezaten; esate baterako, ilara bereziak sortzeko aukera emango zaie edo dagozkien moldaketak egingo dira.

9-Hauteslekuan ahalik eta denbora gutxien egoteko neurriak hartuko dira; esate baterako, botoa ematera joan aurretik, errolda-txartela berrikustea gomendatuko da; hauteslekuan seinale argiak jarriko dira, eta hauteskundeetako laguntzaileek boto-emaeleari beren mahaira joaten lagunduko diote; boto-emalea, botoa eman aurretik edo ondoren, taldetan ez elkartzera, elkarri eskurik ez ematea edo lokalaren barruan geldirik ez geratzera animatu behar da.

2- HAUTESKUNDE MAHIAK

Hauteskunde Araudiaren 10 artikulua arabera, 3 pertsonen osatutako hauteskunde mahai osatuko da, eta, honek, Hauteskunde Araudiko 9, 10 eta 11 artikuluek ematen dizkion funtzioak beteko ditu.

COVIDak eragindako ez ohizko egoera eta osasun publikoa direla eta, izango ditugun mahai kopurua kontutan izanda eta hauetan uneoro gutxienez bi pertsona egon daitezen ziurtatzekotan, Hauteskunde Arautegiko 6.1 artikulua arabera, behar beste **HAUTESKUNDE MAHIETARAKO LAGUNTZAILEAK** izendatuko dira. Hauen, funtzioak, soilik, bozkatze unea kontrolatu eta tokatu zaien mahaien bozka kontaktetan laguntzea izango dira. Honen arabera, Hauteskunde Arautegiko 9.2 artikuluan agertzen diren gertaera guztiak hauteskunde mahaiak ebatsi beharko ditu.

Bozkatze unean eta ondorengo kontakatarako, hauteskunde mahaietako kideek, nitriloko eskularruak eta ahokoak izango dituzte eskuragai.

Bestalde, hauteskunde mahai guztietan, bertako kide, kontrolatzaile eta Federazioko langileek erabiltzekotan, gel hidroalkoholikoa egongo da eskuragai.

3- KONTROLATZAILEAK

Osasun Segurtasun arrazoiak direla eta Hautagaitz guztiekin, bozkatze unean eta ondorengo kontaketan izango diren kontrolatzaile kopurua adostuko da.

Dena den, kontrolatzaileek ere ahokoa izan beharko dute eta hauteskunde mahiekiko, bozkari eta bertako gainontzeko pertsonetikiko segurtasun distantzia gorde beharko dute. Distantzia hau beti BI METROTAKOA izango da.

4- ARAUDIA

Duten garrantziagatik 2020ko Ekainaren 25ean Osasun Sailburuordearen argitarapena non hauteskundeetarako jarraibide sanitarioak adierazten diren artikulua idazten ditugu:

Laugarrena. Higiene-jarraibideak hauteslekuetan.

1. Oro har, indarrean dagoen araudiak ezarritako jarraibideei eta agintari sanitarioen jarraibideei jarraituko zaie.
2. Bozketa egin aurretik, hauteskunde-egunean erabiliko diren hauteslekuetako instalazioak garbitu eta desinfektatu egingo dira. Lan horiek hauteslekua instalatu ondoren egingo dira, dagokien materialarekin (hautestontziak, kabinak, mahaiak eta abar).
3. Bozketaren egunean, hauteslekuak aireztatuta egongo dira, eta tarteka garbituko dira mahaiak, hautestontziak eta kabinak, baita komunak, ateak, eskubandak eta maiz ukitzen diren beste gainazal batzuk ere.
4. Hauteskunde-mahaiak ixtean, hauteskunde-lokalen garbiketa eta desinfekzioa bermatu beharko da.
5. Mahaikideek, kontu-hartzaileek eta ahaldunek, eta hauteskundeen zerbitzura dauden gainerako langileek, instalazioetako komunak erabili ahal izango dituzte. Beste inork ez ditu komunak erabiliko, behar-beharrezkoa denean izan ezik. Komunak bozketa-egunaren bezperan desinfektatuko dira eta xaboia, ura eta lehortzeko materialak izango dituzte.

6. Hauteskunde-mahaietan birusen aurkako gel hidroalkoholikoak edo desinfektatzaileak jarriko dira mahaiko langileentzako, ikuskatzaileentzako, ahaldunentzako eta hauteskundeetako langileentzako.

7. Hautesleketan edukiontziak eta paperontziak egon beharko dira, zapiak eta behin erabiltzeko beste edozein material bota ahal izateko.

8. Hautesleketara leku seinalatu eta irisgarri batetik sartzean, birusen aurkako gel hidroalkoholikoak edo desinfektatzaileak egon beharko dira, erraz ikusteko moduan eta erabilera handiko guneetan leketan. Baita zapiak eta erabili eta botatzeko beste edozein materialentzako zaborrontziak ere.

***Bosgarrena.* Mahaikideak eta gainerako hauteskunde-langileak babesteko jarraibideak.**

1. Mahaikideen artean, oro har, beste atal batzuetan adierazitako gutxieneko distantzia errespetatzeko ahalegina egingo da.
2. Berariaz aurkakoa adierazi ezean, hauteskunde-mahaietako kideek, kontu-hartzaileek, ahaldunek eta administrazioko ordezkariak maskara kirurgikoak edo arnas-babes baliokidea edo handiagoa dutenak eraman beharko dituzte.
3. Gomendagarria da eskuak maiz garbitzea, bai komunetan, bai norberaren eskura dauden higie-ne-instalazioetan, bai bozketa-mahaietan egongo diren gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaile birizidak erabiliz.
4. Botoa emateko kredentzialak edo hauteslearen bozketarako gutun-azala manipulatzeko saihestuko da, premiazkoa ez denean.
5. Hartutako neurrien berri emango zaie mahaikideei eta administrazioko ordezkariari, baita neurri horiek babesteko eta norberaren garbitasunerako jarraitu beharreko gomendioen berri ere.
6. Mahaikideei eta administrazioko ordezkariari maskarak eta eskularruak emango zaizkie.

5-JAKINARAZPENA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILARI

Protokolo hau Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bidaltzea erabaki da.


Donostian 2020ko Urriaren 15a

HAUTESKUNDE BATZORDEA

Izpta: Iñaki Irigoien

A simple, stylized handwritten signature in black ink, consisting of a vertical line with a small hook at the bottom.

Izpta: Lorenzo González

A complex, cursive handwritten signature in black ink, featuring multiple overlapping loops and a long horizontal stroke at the end.

Izpta: Kepa Sanz

A handwritten signature in blue ink, with the name 'Kepa Sanz' written in a cursive style and enclosed within a large, horizontal oval loop.